

BARAKALDO ASTIALDIA 2018 | Adierazpena
"Astialdi hezitzailea. Inklusioaren alde"

Declaración | BARAKALDO ASTIALDIA 2018
"Educación en el tiempo libre. Avanzando en la inclusión"



Astialdi hezitzaileko boluntario eta profesionalak, administrazio publikoetako teknikariak, gizarteko eta hezkuntzako eragile eta erakundeak, unibertsitateko ikasle eta irakasleak, ikertzaileak eta arduradun politikoak Barakaldon elkartu gara gaur, **2018KO ASTIALDI KONGRESUAN**, Astialdi Sareak eta Euskal Herriko Unibertsitateak deituta.

Personas voluntarias y profesionales del tiempo libre educativo, técnicos de administraciones públicas, agentes y organizaciones sociales y educativas, alumnado y profesorado universitario, investigadores, responsables políticos, nos hemos reunido en Barakaldo, en **ASTIALDI KONGRESUA 2018**, convocados por Astialdi Sarea y la Universidad del País Vasco.

Astiaaldi hezitzaileari buruz dagoen literatura/hausnarketa oso zabala eta sakona dela uste dugu, eta ondo finkatzen dituela berori eratzten duten jarraibideak, irizpideak eta elementuak.

Hainbat lurraldetan egin diren askotariko biltzarrek aurrera egin dute hausnarketa hori ezaugarritu eta antolatzean.

Oinarrizko taldeek herri, hiri edo mugimendu bakoitzean eman dituzten urratsak oso garrantzitsuak izan dira, bai eta hainbat administrazioetan, zerbitzutan eta erakundetan eman direnak ere.

Consideramos que la literatura-reflexión existente sobre la educación en el tiempo libre (TLE) es muy extensa y profunda, y marca bien las pautas, criterios y elementos que la configuran.

Los diversos congresos celebrados en distintos territorios han avanzado en una caracterización y articulación de la misma.

Los avances que se han ido realizando en los grupos de base en cada pueblo, ciudad o movimiento, así como en las distintas administraciones, servicios, entidades...es muy relevante.

Horrek guztiak asko lagundu du eta laguntzen jarraitzen du bai pertsonen eta kolektiboen bidelagun aritzeko eta pertsona horiek osotasunean hazteko prozesuak zehazteko eta garatzeko unean, bai gune komunitario parte-hartzaile eta erantzunkideen eraikuntza indartzeko unean. Etengabeko egokitzapenean gaude, malgu, zitzu bizian aldatzen ari den errealitate konplexu honetan.

Astiaaldiko hezkuntzako taldeak eta proiektuak eratzeko apustua argia da: gune hezitzaileak eraiki nahi ditugu, norberaren nortasunaren adierazpena bizi ahal izateko horietan, norbera den bezalakoxea ager dadin eta besteen nahiz norberaren izateko eta egoteko askotariko moduak onartzen, errespetatzen eta baloratzen ikas dezagun.

Todo ello ha contribuido y está contribuyendo a definir y desarrollar procesos de acompañamiento y crecimiento integral de las personas y colectivos, y a fortalecer la construcción de espacios comunitarios participados y corresponsables. En permanente adaptación, flexibles, en una realidad que cambia de manera veloz y que es compleja.

La apuesta fundacional de los grupos y proyectos de TLE es clara a través del tiempo: construir espacios educativos en los que poder vivir la expresión de la propia identidad, en los que poder “dejarse ser” y aprender a aceptar, respetar y valorar las diversas maneras de ser y existir propias y ajenas.

Astiaaldiko hezkuntzan, hezkuntza formala indartzen, hedatzen etaosatzen duten proiektuak garatzen ditugu. Asmo, xede, programazio, ekipo, metodologia eta tresna hezitzaileekin antolatzen eta planifikatzen ditugu gure proposamenak. Pertsonekin garatzen dugun lan hezitzaileak, pertsona horien adina eta jatorria edozein izanda ere, herria eraiki eta egin ere egiten du: pertsonak, familiak, auzoak, herriak, hiriak eta abar.

Gaur, aurretiko hausnarketa-guneetan ibilitako bidearekin jarraitu nahi dugu, eta jarrera nahiz ibilbide hauek nabarmendu:

Desde el TLE desarrollamos proyectos que refuerzan, amplían y complementan la educación formal. Nuestras propuestas son organizadas y planificadas con intencionalidad, fines, programación, equipo, metodologías y herramientas educativas. El trabajo educativo que desarrollamos con las personas, sin importar la edad ni la procedencia, construye y hace país: personas, familias, barrios, pueblos, ciudades, etc....

Hoy queremos continuar el recorrido transitado en anteriores espacios reflexivos y significar las siguientes posiciones y rutas:

1. Pertsonen garapen osoari eta komunitateen garapenari laguntzea, toki- eta herri-mailan.

Astialdi hezitzailea arautu gabeko hezkuntza-sistema da; hezkuntza formalaren ezagutzetan eragiten du, eta herritar zoriontsuagoak, parte-hartzaileagoak eta demokratikoagoak sortzen laguntzen duten balioak erabiltzen ditu. Hori dela-eta, erakundeen inplikazio proaktibo handiagoz begiratu behar diogu etorkizunari, gizarte-asmo egokituekin, jarduteko ildo berriekin eta berrikuntza pedagogikoarekin.

1. Contribuir al desarrollo integral de las personas, al desarrollo de las comunidades, a nivel local y de País.

El Tiempo Libre educativo es un sistema educativo no reglado que incide en los conocimientos de la educación formal y experimenta los valores que contribuyen a una ciudadanía más feliz, participativa y democrática. Por todo ello tenemos que mirar hacia el futuro con más implicación proactiva institucional, con aspiraciones sociales adaptadas y nuevas líneas de actuación y renovación pedagógica.

2. Astialdi-taldearen eta -proiektuaren ohiko irudia gainditzen duten proiektuak eta prozesuak eraikitzea.

Komunitate osoarekin eta berori osatzen duten askotariko eragileekin egiten dugu lan, hezkuntza formalarekin eta bazterketa-egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden kolektibo espezifikoeekin hartu-emanean. Aurre egiten diegu gizartearen erronka berriei, gure proiektuak sortuz eta horietan berrikuntzak sartuz. Adi begiratzen diogu etorkizunari, erronka berriei, eta etengabe egokitzen dugu geure burua.

2. Construir proyectos y procesos que superan la imagen clásica del grupo y proyecto de tiempo libre tradicional.

Trabajamos con el conjunto de la comunidad y su diversidad de agentes, creando vínculos con la educación formal, con los colectivos específicos en situación o riesgo de exclusión. Hacemos frente a los nuevos retos sociales, creando, innovando en nuestros proyectos. Estamos atentos al futuro, a sus nuevos desafíos, adaptándonos permanentemente.

3. Astialdi hezitzailea helduekin, familiekin eta adinekoekin batera eta horientzat ere sustatzea.

Astiaaldiko hezkuntzak ematen dituen aukerak ezin daitezke adin zehatz batzuekin bakarrik lotu, bizitza osoan baitu eragina pertsonen garapenean eta hazkuntzan. Gaur egun "astiaaldiko" gunetzat hartzen diren bestelako gunek, era berean, pertsonen garapenari laguntzeko gune egokitzat jo ahal izatea proposatzen dugu, pertsona horien adina edo taldea (familia, lagunak, klubak, elkarteak eta abar) edozein izanik ere.

3. Impulsar también el tiempo libre educativo, junto, con y para las personas adultas, familias y personas mayores.

Las oportunidades que la ETL aporta, no pueden suscribirse a unas edades, sino que tiene importancia en el desarrollo y crecimiento de las personas a lo largo de toda su vida. Proponemos que otros espacios actualmente considerados como espacios de "ocio" puedan ser considerados, así mismo, como espacios apropiados que puedan contribuir al desarrollo de las personas sea cual sea su edad, o grupo del que forman parte (familia, amigos, clubs, asociaciones, etc...)

4. Belaunaldiarteko lanaren alde egitea.

Pertsonak "zerbait egiteko" elkartzen diren tokietara hurbiltzen dira astialdi hezitzaileko eragileak eta taldeak; lan hezitzaile honen belaunaldiartekotasuna azpimarratzen dugu astialdian, adin guztiekin eta hurbileko toki ohikoetan.

4. Apostar por el trabajo intergeneracional.

Los agentes y equipos del tiempo libre educativo se acercan allí donde las personas se reúnen para “hacer algo”, subrayamos la intergeneracionalidad de todo este trabajo educativo, en el tiempo libre, con todas las edades, en los lugares próximos y cotidianos.

5. Gizarte-politiketan eragile aktiboak izatea.

Ekarpenak egiten ditugu politika sozio-hezitzaileetan eta gizarte-politiketan (esku-hartze soziala, gizarte-zerbitzuak, inklusioa, gizarte-kohesioa, aniztasun funtzionala, kultura, generoa, gazteria, berdintasuna, elkartasuna eta abar). Halaber, beste hezkuntza-, gizarte- eta kultura-erakunde batzuekin egiten dugu lan, eta etengabeko hartu-eman bizioan ibiltzen gara gizarte-politikekin eta askotariko eragile politikoekin, gizartekoekin, hezkuntzakoekin, kulturakoekin, ikaskuntzakoekin, kirolekoekin, sozioekonomikoekin, ingurumenekoekin...

Aurrera egiten ari gara gizartearen, administrazioen, erakundeen eta elkarten aitortzan, bai egin dugun lanagatik, bai astialdi hezitzaileak gizarte duin, gizatiar, aske eta zorientsuak eraikitzeko dituen aukerengatik.

5. Ser agentes activos en las políticas sociales.

Realizando aportaciones y contribuciones en las políticas socioeducativas y en las políticas sociales (intervención social, servicios sociales, inclusión, cohesión social, diversidad funcional, cultura, género, juventud, igualdad, solidaridad, etc...) Trabajando con otras instituciones educativas, sociales, culturales... En conexión permanente, activa y de trabajo común con las Políticas sociales y con la diversidad de agentes políticos, servicios sociales, educativos, culturales, de emprendizaje, deportivos, socioeconómicos, medioambientales, etc....

Avanzando en el reconocimiento de la sociedad, de las administraciones, organizaciones, instituciones, por el trabajo realizado y por las posibilidades que el trabajo de ETL tiene en la construcción de sociedades dignas, humanas, libres y felices.

6. Esku-hartzeen inpaktua aztertzen duten ikerketak egitea. Etengabeko berrikuntzan egotea.

Astialdi hezitzaileak gizarteari, pertsoneri eta kolektiboari egiten dien ekarpenaren nahiz astialdi hezitzailean egiten diren ekintzen inpaktu ekonomikoaren emaitzak eta ebidentziak enpirikoki emateko gai izan gaitzen.

Astialdi hezitzaileko taldeek eta proiektuek beren buruarekin duten aitortza-mailak gora egin behar du, egiten duten lanaren garrantziaren jakitun izan daitezen.

6. Realizar estudios que analizan el impacto de las intervenciones. Estar en permanente innovación.

Para ser capaces de ofrecer empíricamente resultados y evidencias de la contribución del TLE a la sociedad y a las personas y colectivos, del impacto económico de las acciones que se desarrolla.

El autoreconocimiento de los mismos grupos y proyectos de TLE tiene que aumentar, para ser conscientes de la importancia de la labor que se desarrolla.

7. Hezkuntzako eragileen prestakuntza birpentsatzea.

Ezinbestekoa da hezitzaileen eta gizarte-dinamizatzaileen (profesional boluntarioen edo soldatapekoen) prestakuntzarekin ahalegina egitea, laguntzen duten toki, proiektu eta prozesuetan dauzkaten gaitasun hezitzaileak indartzeko xedez. Ingurune digitalean esperientzia berritzaileei bidea emango dien eta familien eta eskolen premia berriei erantzungo dien prestakuntza behar dugu. Kolektibo berrien (familien, helduen, adinekoen...) eta testuinguru berrietako astialdi hezitzailean lan egiteko pertsona egokienak onartu behar dira prestakuntzarako, bizi-esperientziak ahalbidetuko dituzten metodologiak erabiliz.

7. Repensar la formación de los agentes educativos.

Es imprescindible dedicar nuevos esfuerzos a la formación de los equipos de educadores y educadoras, dinamizadores sociales (profesionales, voluntarios o retribuidos). Para fortalecer sus competencias educativas en los espacios y en los proyectos y procesos que acompañan. Formación que favorezca experiencias innovadoras, en un entorno digital, que dé respuestas a las nuevas necesidades familiares y escolares. Aceptar para la formación a las personas más adecuadas para el trabajo en el Tiempo Libre educativo de los nuevos colectivos (familias, personas adultas, personas mayores, etc..) y en nuevos contextos utilizando metodologías adecuadas que permitan experiencias de vida.

Ezin dezakegu ulertu, eta salatu egiten dugu, astialdi hezitzaileko monitoreen prestakuntza negoziotzat hartzea (prestakuntza edozein preziotan, edozein arduralditan, edozein adinetan, edozein modutan eta edozein metodologiarekin ematea). Jakintza hutsa izango ez den prestakuntza etengabearen alde egiten dugu; hau da, hezkuntzaren errealitatearen, gizarte aldakorraren eta pertsonen eta kolektiboen premien gaineko etengabeko hausnarketatik abiatuko den ekintza-bidea izan behar du prestakuntzak.

No podemos entender y denunciarnos la formación de monitorado en el TLE como negocio (captación de formación a cualquier precio, a cualquier tiempo de dedicación, a cualquier edad, y de cualquier forma y metodología). Apostamos por una formación continuada que no sea simplemente un saber, sino una vía a la acción que parta de la reflexión continuada de la realidad educativa y de la cambiante sociedad y de las necesidades de las personas y colectivos.

8. Bizitza negoziotzat ez hartzea.

Negozioak –eta ez kasualitatez– toki eta denbora guztiak inbaditzen ditu, eta, sarri askotan, irentsi ere egiten ditu, baita isiltasunari, atsedinari, poztasunari, topaketari, borondatezko lanari, gizarteraldaketari eta abarri eskainitako (g)uneak ere, eta, horrela, astialdia bera eta horren bertuteak ukatzen dira.

8. Superar la vida como negocio.

El negocio, no por casualidad, invade y con frecuencia devora todos los espacios y tiempos, también el espacio dedicado al silencio, el descanso, la alegría, el encuentro, el voluntariado, la transformación social,..., negando así el ocio y sus virtudes.

Horrexegatik, ikuspegi soziopolitikotik begiratuta, astia izateko alditzat hartu behar dugu astialdia, eta halaxe sustatu. Hortaz, harremanetarako gunea izan behar du, bertan hazteko eta galderak egiteko tokia, hezitzailea, sortzailea, aktiboa, parte-hartzailea, kolektiboa, eraldatzailea eta inklusiboa, pertsona guztiei –aniztasunean–, desberdintasunei eta kultura guztiei irekita dagoena. Digitalizazioari lotutako prozesuak eta tresnak kritikoki txertatzea eta eraldatzea, beraz, berebiziko ahalegina izango da, horri esker helarazi ahalko baitizkiegu astialdi hezitzaileko proposamenak herritarrei oro har eta haurren, nerabeen eta gazteen belaunaldi berriei zehazki, eten digitalari aurre egitearekin batera.

Por eso desde una perspectiva socio-política, se ha de rescatar y promover el tiempo libre como un tiempo liberado. Y, por tanto, como un espacio relacional, en el que crecer y hacerse preguntas, educativo, creativo, activo, participativo, colectivo, transformador e inclusivo, abierto a todas las personas, en su diversidad, a las diferencias, las culturas,... Es este esfuerzo, incorporar críticamente y transformar procesos y herramientas vinculadas a la digitalización, un desafío de primer orden para poder trasladar propuestas de tiempo libre educativo a la ciudadanía en general y a las nuevas generaciones de niños, adolescentes y jóvenes, afrontando también la brecha digital.

9. Hirugarren sektorearekin zerikusia daukaten astialdi hezitzaileko proiektuen ekarpenak aitortzea.

Astialdi hezitzaileko proiektu askok hirugarren sektoreko erakundeetan edukitzen dute jatorria, eta horietan garatzen dira. Historikoki, auzo eta hiri askotan, sustatu, gidatu, eraiki eta eraldatu egiten duten herritar antolatuen esperientziatzat hartu izan dira astialdi hezitzailearen ekimen bereziak. Tokiko eta lurraldeko politikak, gizarte-politikak, hezkuntza-politikak eta haurren, nerabeen eta gazteen arloko politikak gobernatzean, diseinatzean eta ezartzean, aintzat hartu behar dira astialdi hezitzailearen balio erantsiak eta ahulguneak.

9. Reconocer las aportaciones de los proyectos de TLE vinculados al tercer sector.

Muchos de los proyectos de TLE tienen su origen y desarrollos en las organizaciones del tercer sector. Históricamente, en muchos barrios y ciudades, sus iniciativas singulares se distinguen como experiencias de ciudadanía organizada que promueve, lidera, construye y transforma. Su valor añadido y sus debilidades, deben ser considerados en la gobernanza, diseño e implementación de las políticas locales y territoriales, sociales, educativas, de infancia, adolescencia y juventud.

Eta profesional boluntarioekin eta soldatapekoekin indartu behar dira taldeak eta sareak. Ezinbestekoa da irudiak profesionalizatzea eta horretarako behar den finantzazio nahikoa edukitzea oinarrizko taldeetan zein sareetan. Talde solido eta kaudimendunak eratu nahi ditugulako: komunitate bereko hezitzaileak (hezkuntza formalekoak eta ez-formalekoak) elkarreraginean egotea nahi dugu, familiekin ekintzara iritsi nahi dugu, beste adin-tarte batzuetara iritsi nahi dugu, beste erakunde batzuekin elkarreraginean aritu nahi dugu, pertsonen garapenarekin zerikusia daukaten auzo- edo hiri-mailako egituretan parte hartu nahi dugu...

Y fortalecer las redes y los grupos con profesionales voluntarios y remunerados. Resulta imprescindible profesionalizar figuras, disponer de financiación suficiente para ello, tanto en los grupos de base como en las redes. Porque queremos articular equipo sólidos y solventes: que hagan posible la interacción de los educadores entre sí (de la educación formal y no formal) de una misma comunidad, llegar a la acción con las familias, a otros grupos de edad, interactuar con otras entidades, participar de las estructuras de barrio o de ciudad que tengan que ver con el desarrollo de las personas...

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile guztiei, bai 2018ko Astialdi Kongresuan astialdi hezitzaileari eman dioten laguntzarengatik eta ekarpenarengatik, bai aurrez aurre ditugun erronketan aurrera egiteko konpromisoarengatik.

Hemendik bi urtera, 2020ko Astialdi Kongresuan, egindako aurrerapenak poz-pozik aurkeztu ahal izan ditzagun. Eskerrik asko, denoi.

Barakaldo, 2018ko urriaren 20a

Queremos dar las gracias a todas y todos los participantes: por la colaboración y contribución que han realizado al tiempo libre educativo en Astialdi Kongresua 2018, por su compromiso para avanzar en los retos que se nos plantean.

Para que en plazo de dos años, en el próximo Astialdi Kongresua, 2020, podamos presentar satisfechos los progresos realizados. Eskerrik asko danori!

Barakaldo, 20 de octubre, 2018